



Langai

1990ko URTARRILA LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 6

Batasun Nazionala Erabakiak

Negoiazio Kolektiboa 90

Zbkia

ZA
BAL
TZEN

TXT 10009.

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

AURKEZPENA.

90-1.4.ean Barrian egindako B.N.ren xedea egoera sindikala eta ekonomikoa aztertzea zen, gaur eguneko koiunturari sozial aspekturik inportanteetan eragina izateko tresna egokiaz jabetzeko, nahiz lantokietan, nahiz lantokietatik at (egoera eta neurri ekonomikoak, negoziazio kolektiboa, estatuko kontzertazioa....).

Idazkaritza Nazionalak eman zuen materialari buruzko eztabaidaren prozesuaren ondoan, B.N.ak erabaki zuen I.N.ak berregin behar zuela B.N.an bertan, interesgarritzat jotako aspektuak kontuan hartuz, erabaki zuen berregite hori Herrialdeetako Idazkaritzei igorri behar zitzaizela B.N.aren behin betiko erabaki gisa hartzeko.

"Egungo egoerari alternatiba orokorra" atala (2.2.) berregite horretatik atera behar izan dugu, eta ikusi dugu hori garatzeko eztabaida berezia egin beharra dagoela, erakundearen militante gehienek behar adina landu ez dutelako. Bilboko eskualdearen ekarpen baliotsuak eta burututako eztabaidak, horrela adierazten digute, edukinei baino inportantzia haundiagoa eman bait zitzaizen formei, eztabaida horretan.

Atal honen asmoa zen, gaur egungo egoera sindikal eta ekonomikoari aurre egiteko tresna egokiaz jabetzea –borroka ideologikorako tresna eta ez bakarrik, borroka erreibindikatorako–. Horretaz gain, tresna horrek bide emanen liguke euskal langileria kezkatzen duten momentuko beste aspektu eta arazo batzu lantzeko (prestazio publikoak orokorrean, lanpostuen egonkortasuna,.....), beti ere, ENAMen proiektu politikoaren inguruan indarrak metatzeko helburua hortan izanik, eta gaur eguneko markoaren aurrean dugun oposizioa, dudarik gabe mantenduz. Hala ere, eskakizunak aipatzeaz aparte (eta oraindik ez ditugu denak eztabaidatu), ez dugu lortu eskuhartzeko tresna horri sendotasuna eta bere lotura ematea.

Atal hori, beraz, lehenbaitlehen eztabaidatuko da bereziki, eta egiturei txosten bat igorriko zaie, orain arte eztabaidan atera den guztia biltzen duena, behar den bezain sakonki aztertu, definitu eta garatua izan dadin. Behin egin onetsitakoan, egoera honetako gure iharduera sindikalerako tresna izanen da. Honek ez du inolaz ere esan nahi, negoziazio kolektiboan dinamila eta edukiaz arduratu behar ez dugunik, kontrakoa agian, B.N.ean esan zen bazala.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	3
1.- SINDIKAL ETA EKONOMI ARLOKO TESTUINGURUARI BURUZ	4
1.1. - Lehenetasunezko Plataforma Sindikala	4
A.- Zergatiak	4
B.- Mamiaren azterketa orokorra	6
1.2. - Testuinguru ekonomikoa	7
2.- EGOERA HONI DAGOKION GURE JARRERA	9
2.1.- LAB eta interbentzio sozio-ekonomikoa	9
A.- Sarrera	9
B.- Gure interbentzioaren ezaugarriak	9
D.- Sindikalismo erreformista, LPS eta LAB	10
2.2.- Gure alternatiba	11
2.3.- Lan plangintza	11
A.- Gure helburua: borroka ideologikoa	11
B.- Barruko eta kanpoko lana	12
D.- Faseak	12
3.- 1990.eko NEGOZIAZIO KOLEKTIBOIA	13
3.1.- 1989.eko Negoziazio Kolektiboaren balantzea	13
3.2.- LPS eta Negoziazio Kolektiboa	14
3.3.- Negoziazio Kolektiboaren markoak	15
3.4.- 1990.eko plataformaren ardatzak	15

HITZAURREA

Lehentasunezko Plataforma Sindikala -eta LPSk Paktu Soziala lortzeko zabaltzen duen prozesuak-, abagadune edo koiuntura ekonomikoa -kapitalaren interesetatik begiratuta, neurri berriak eskatzen ditu-, negoziazio kolektiboak, eta bertan dauzkagun hauteskunde sindikalak, izan dira datozen hilabeteetan sindikal mailan eraginen duten punturik garrantzitsuenak.

Egoera zehatz honen aurrean eskuhartzeko bi tresna egokiz jabetzen saiatuko gara. Bata, espezifikoa, negoziazio kolektiborako. Bestea, orokorra, euskal langileria eta langile mugimenduaren gaurko egoeraren arazo orokorretarako (gastu sozialen murrizketa, komiteak desagertarazteko ahaleginak, e.a.).

KASetik, egoerari buruz -batipat 1988.eko Urtarrilatik aurrera egindakoak- egiten ditugun balorazio global eta irakurketa politikoek, ikus-tarazten digute, beharrezkoa dela eguneroko arazoei lotuago egotea, eta, azkenik, gure ekintza politikoaren barrenlotura adieraztean, pedagogia eta pazientzi handiagoa erabili beharra, "kanpora eta herriari begiratzat daukaten zuku guztia atera gabe pasatzen zaizkigun gertakizun politiko guztiak jakinarazteko lana-

rekin" indartuz gure diskurtsoa.

Orain, inoiz baino gehiago, (Euskadi-estatu espainiarraren arteko kontentziosoari dagokion egoera politikoaren arabera eta klaseen arteko gatazkaren egoeraren arabera), gure betiko ekintza eta jokabideen mezuan eta edukian gardentasun haundiagoa lortu behar dugu, eraginkor izateko, gure identitatea agerian jartzeko, etab., ez da aukera bat ere desaprobatxatu behar.

Hausnarketa guzti hoiak egi bihurtzen ditugun neurrian, euskal langileriak, berak, jakinen du bereizten, nork bilatzen dizkion egitazko irtenbideak, eta nork, marko juridiko honi baie-tza emanez bilatzen dituen ezinezko "giza jiroak", "jiro ekonomikoak", "jiro...", giza eraldakuntzarako asmo guztiak bazterrean utzi bait dituzte.

Horrela begiratuta, indar osoa mantentzen dute 1988.eko Abenduko B.N.aren azterketa eta planteamenduak, zehazki, "egoera ekonomiko" eta "langileen mugimenduaren azterketa" atalei buruzkoak. Oinarrizko hausnarketa hauek gaur egun gure iharduera sindikalean eragina handia dute. Beraz, horiek kontutan hartu gabe, ezin dugu ontzat eman B.N. hori.

1.- SINDIKAL ETA EKONOMI ARLOKO TESTUINGURUARI BURUZ.

1.1.- LEHENTASUNEZKO PLATAFORMA SINDIKALA.

A.- Zergatiak:

UGT-CCOO-ELAk, Abenduaren 14arekin "taktika sindikala aldatzeari" bultzada txiki bat eman zioten. Bigarren bultzada udazken honetan emateko asmoa zuten LPSren hildotik; ELAren idazkari nagusiaren aldaketa eta zentzu honetan ulertu behar da.

Aldaketa horrek UGT-CCOO-ELAk azkeneko legislatura honetan jarraitu duten estrategiarekin topo egiten du, prozesu hori gora behera haundiekin ari dira burutzen mundu guztia krisi ekonomiko, kultural eta politiko sakon batean bait dago.

Transizio honetan ez burutzea inolako hausturarik, zera esan nahi du: aurreko erregimena bultzatu zuten indar ekonomiko eta sozialak zituzten interesak eta tresna eragileak ukitu ere ez dituztela egin. Botere faktikoen transizio honek beraien interesak eta batez ere, ekonomia arloan zuten eragina, arriskuan jartzen zituela uste zuten neurrian, transizio hau, arriskutsua aurkezten zen. Guzti honen ondorio bezla uler genezake aukeratutako estrategia sindikala, lehentasunezko ardatza izan dutelarik "arriskuak gutxitzea" batetik, eta botere faktikoen suertatu zitezkeen enfrentamenduak kontrolatu eta gutxitu, bestetik.

Erakunde hoienezuzendaritzek, krisi ekonomikoak transizio politikoa balantzan jartzen zuela ulertu zuten, botere faktikoen aldetik atzerakada arriskua haunditzerakoan; langileria ez zegoela aldaketa sakonak bultzatzeko prest, pentsatzen zuten; ohartarazi zuten benetako sozialismoari aurre egiteko alternatiben krisiaz; eta bukatzeko, langile mugimenduan ordurarte izan ez zuten protagonismoa errazten zuen erlazio sistema berria eraikitzeko aukera ikusi zuten.

"Inboluzioa" gertatzeko arrisku aurrean (nahitaez klase borrokak erantsita daukan arriskua da hau), aurrera segitzeko edozein urrats geldiezina zen. Langileriaren eta herrien edozein aurrerapena, inboluzio arriskuan bihur daiteke, klase eta kultur kontraesan gogorraren garapenaren emaitza bait da: ezin da pausorik eman, interes batzuk beste interes batzuen aurka jarri arte. Baina inboluzio arriskuei aurre ez egiteak, ezinbestean dakar langile eta herrien interesak bloke zapaltzailearen interes ekonomiko-politiko eta ideologikoen menpean jartzea. Eta honen ondorioz, dudarik gabe, aurrera egin eta gizartea aldatzeko aukera guztiak, behin betiko baztertzea.

Europa guztiak bizi zuen krisi ekonomiko, eta botere ekonomikoak erakunde politiko eta sindikatuekin "elkarulertze" batera iritsi nahi zuen: 1975.etik aurrera ezkerreko partiduek gobernurako atea irekia ikusten dute (Britania Haundia, Frantzia, Alemania,...) edo gobernu lanetan laguntzeko aukera (Italia). Negoziazio industrialak eta eztabaida krisi sakonaren inguruan zentralizatzen saiatu ziren, aurreko zabalpen garaiko dinamika lokalisten deszentralizazio eta kontrol ezari aurre egin nahian.

Gauzak horrela, Estatu espainolean berriz, UGT-CCOO eta ELAren interes ekonomiko, politiko eta bereziak ere bateratu egin ziren, nolabaiteko estabilitate politikoa lortzearen ("salba dezagun demokrazia"), langileriarantz sakrifizio ekonomiko izugarriak eta sindikatoek erlazio industrialen sistemak leku berezia izan zezaten. Moncloa-ko paktoak izan ziren, interes ezberdin horiek bateratzeko lehengo saioak, eta ondorengoak ere (AMI, ANE,...) horixe baieztatzen dute.

"Langileria ez bada ados ez patronalarekin ez gobernuarekin, baina ez bada nahi edo ezin bada patronala edo/eta gobernu aldatu..., alda dezagun langileria" (B.Brech-en hitzetan esanez). Hau da, UGT-CCOO eta ELA transizioz geroztik patronalarekin eta gobernu guztiekin kontzertazio estrategia mantentzen

saiatu dira beti, eta ikusi dugu zer nolako ondorioak ekarri dizkigun: alde batetik, lan baldintzen alorrean zutabe estruktural nagusienetakoak galdu egin dira; lanpostuen estabilitatea (egonkortasuna), lantegietan langileriaren boterea suntsitzea edo gutxitzea. eros ahalmena txikitzea, makina bat lanpostu galtzea..., eta hori dena, Langileen Estatutuan, desentzuegaren legegintza berria, Pentsioen Erreformatan, Pentsioen plan eta fondoak, zerbitzu publikoen pribatizazioan, LOLS-en, eta beste hainbat tokitan "petrifikaturik" gelditu da. Transizioak hobetu du soziologian "ahots mekanismoak" deitzen dena (langileriaren partehartzeko modua eta bideak instituzionalki ezagutzea) -integraztaileak eta despolitizatzaileak-, langileriaren eskubide sozio-laboralak eta lan harremanen edukia txartu dutelarik.

UGT-CCOO eta ELAren diskurtsoa eta aktibitate sindikala, berriro ere langilegoarengana zuzendua dago, honek legitimatu diezaion beren eginkizun berria aurrera eramateko: INSTITUZIONALIZAZIO SINDIKALA, ez krisian dauden botere politiko eta kapitalaren indarberitzea erreztan duen pakto soziala lortzeko, baizik eta, krisiaren estabilizazioa areagotzeko. UGT-CCOO eta ELA-ko gauza bakarra egin dute orain arte: krisiak jotako azpiegitura industrialaren desegite prozesua posibilitatu ("guk bete dugu" Abenduaren 14ko eslogana), kapitalaren indarrak handituz. Orain, fase hau bukatzeaz dagoenean, ikusten dute jokatu behar duten papera, pakto sozialaren edukia, bestelakoa izan behar duela: gobernu eta indar politiko ezberdinekin batera gestioatzea krisiaren eboluzioan emango diren hurrengo faseen garapena, "ekonomiaren, demokraziaren... salbaziorako", eta arazo sozio-ekonomiko handietan jokatu duten ezinbesteko papera erabat baztertuz (horregatik gobernuak ez dute UGT-CCOO edo ELAren beharrik kapitalari eman behar zaion garantia modura). "Beraiek ez dute bete" (esloganaren bigarren zatia) ez dute galdutakoa eskuratzeko asmoarekin zuzen-

tzen, baizik eta "ahots" arlo gehiago lortzeko eta botere ekonomiko eta bere gestio politikoek aurretik erabakitzen duten gastu sozial hehainen banaketari zuzentzen diote.

UGT-CCOO eta ELAren zuzendari-entzatez ordea, lortu nahi dena lan erlazioen sindikalizazioa da, UGT-CCOO eta ELAren beharra erakustea lan erlazio fase guztietan (kontratazioa, garapena eta itzaltzea), "ahots mekanismoak" indartuz eta lan erlazioen edukia eztabaidatu gabe utziaz. Horrek, enpresako komiteen deuseztapena suposatuko luke, eta beraien instituzionalizazioa "lan indarren administratzaile tekniko" bezala, eta ez gizarte-ko agente transformatzaile bezala.

Lehentasunezko Plataforma Sindikalararekin lortu nahi den bakarra zera da, sindikatu erreformisten aurpegia garbitu datozen hauteskunde sindikalak begiratu. Esandakoaren argibide garbia UGT-ko hainbat buruzagiek planteiatu duten beharrezko sindikalizazioa izango genuke.

Estrategi berri hau martxan jartzekoan indar ekonomikoaren interesak defendatzeko bidean doaz, zeren erlazio sindikalen deszentralizazioa bait dakar berarekin, enpresan oinarrituriko erlazioak areagotzen bait dira eta planteiatzen duen arazoaren irtenbidea esparru horretan egitea bultzatzen bait da. Horixe da hain xuxen indar ekonomikoek nahi dutena.

Lehentasunezko Plataforma Sindikalararen edukia, beraz, gobernuak eta indar ekonomikoek nahi duten neurrian bakarrik garatuko da ("pensiones asistenciales" eta "programas de formación", e.a.), batez ere lan erlazioaren sindikalizazio edo instituzionalizazioari dagozkion puntuetan, hala nola kontratazioaren babes sindikala, lan publikoen segimendubatzaileak, negoziatzaile kolektiboetan beren eskusartzea, organo kontsultiboan garapena eta egonkortasuna, "gatazka-greben autorregulazioa"ren ikuspuntu berezia, e.a.

B - Mamiaren azterketa orokorra

LPS osatzen duten puntuak denak ezagutuko dituzuelakoan gaude (txosten osoa pasata dago). Osatzen duten lau puntu orokorrek hauek dira: enplegua gehitzea eta hobetzea, babes soziala hobetzea, errentaren birbanatzea, eta, langileen partehartzeko eskubi-dea.

Abenduaren 14-ean aldarrikatutako eskakizunak kontutan hartuz, esan daiteke atzera egiten dela, eta garai hartan botatutako hitz-jarioak "kontraesan" borobila zuela, alde batetik eskaera zehatzik ez zegoelako, eta bestetik "aztertu, sustatu, aldatu, eskatu, ..." behartako asko zegoelako, hala nola bere kuantifikazioan ("zor soziala", "soldata soziala", "gutzienezko soldata", murrizagoak.

Argi dago honek ez duela esan nahi "neurri ekonomiko multzo" hori gobernuaren politika ekonomikoaren alternatiba izan daitekeenik, ezta patronala kolaborazio sindikalaren bidez lortzen joan den lan harremanak erabat edo zertxobait aldatuko direnik ere. Baina ez dute atzerapen bat suposatzen (ideologikoki despolitizazioa salbo), politika ekonomikoan aldaketa erreala "adierazi" nahi bait du; horretarako gobernu eta patronalen arteko negoziazioa eta kontzertazioa erabiliz, ekonomiaren igoera "konpartitu" nahirik.

"Plataforma mobilizatzailerik" klasikoa besterik ez da, baina hori alde batetik gizarte mailan sentsibilite haundia duten puntuak sartzen dituzte: langabezia, lanorduak gutxitzea, ordu estrak kentzea, ...; bestetik ordea, alor sindikaleko istituzionalizazioa bilatu nahi duten puntuen atzetik dabilta: kontratatzerakoan laguntza publiko-legala, organo kontsultiboen osaketa eta indartzean partehartzea.

Garbi dago hor azaltzen dizkiguten zenbait puntu, itxura egiteko besterik ez direla (ordu estrak, lanorduak gutxitzea, ..) zeren egia esan UGT-CCOO eta ELA-k ez bait lituzkete beren konbenioetan sartu eta lantegietan bete araziko, kontrako bidean aktiboki bait daude.

Beste puntu batzuk, hauteskundeetako ondorioak ikusirik eta gastu sozialari zuzendutako aurrekontuen murrizteak (LPS-ren II, eta III. blokeak) ezinezkoa izango zaie, administrazio publikoekin "negoziatzeko" ahalbidea ez bait da horrenbesteraino iristen. Batez ere EEE-ren bidez, nola gobernu zentralak, hala autonomikoek kapital finantziari eta monopolistekin hartutako konpromezuak loturik bait daude, (irakur 1.2. puntua). Batzuk, ez onargarriak bakarrik baizik eta "cartera"n daudenak edo martxan daudenak dira (vascongadetan gertatu den modura, jadanik zenbait laguntza zehatzak zuzendu dizkiote kolektibo zehatzei), hain zuzen ere eta marginazio sozialen benetazko boltsak istituzionalizatzeko perspektibatik, arazo iraunkor eta aboratu ezina bezala onartzen da.

Bukatzeko esan, beste puntu batzuk "partehartze sindikala" bultzatzen duten prozedimendu hutsa direla: kontratazioen babes sindikala, kontrol organuak "sindikatuaren partehartzearekin",... eta LPS-ren IV. blokea orokorrean. Ez da ba kasualitatea "langileen errepresentazio sindikala" edo beste edozein motatako errepresentazioaren arteko (komite eta delegatuek sekzio sindikalarekin adibidez) azpidentifikatu beharra, eta "sindikatuaren potentziazio istituzionala ezaren" ondorioz onartuta dauden eskubideak iraupen mugatua dutela burubelarrizko erreferentzia. "Ahots mekanikoa" indartu nahi dituzte berriro ere, ez zer baizik eta nola, eta beti sindikatuei dagokionez, sistemaren asimilazio eta integrazioa, klasearen desideologizazioa eta despolitizazioa sendotuz.

UGT-CCOO eta ELA-ren zuzendaritzek, (nahiz eta ELA ez LPS-ren barruan egon), mezu garbia ematen diote langileriarri: "Marko honen aldeko apustua egin dugu alda daitekeelako ideiak baztertuz. Beraz, marko honetan kokatzeko baldintzarik hoberenak behar ditugu bilatu. Ez dago beste aukerarik langileriantzat. Beste edozein alternatiba gure sistemaren interesen aurka atentatzea izango litza-teke, sistema gure beharrak betetzeko gauza bait da."

1.2.- TESTUINGURU EKONOMIKOA

Egungo arazo ekonomikoak, azkeneko neurri ekonomikoak sortu zituzten berberak dira: inflazioa, langabezia eta pagamendu balantzaren defizita. Estatu mailan langabezi formala 3 milioi lortzeraino iritxi zen, eta egun 1976eko kopurua hirukoiztu du, eta EEE-ko estatuen azkeneko izaten jarraitzen du (%16,4 %9-aren aurrean). Orduan kontu arruntan pagamendubalantza 3.000 milioi dolarreko defizita bazegoen, urtearen azkenerako 10.000 milioitara igoko da. Ikusten ari gara nola inflazioa indarrez igotzen den, urtearen bukaerarako %7,1-era iritxiko dela pentsatzen da, eta ez da gehiago igotzen soldata errealak eta gastu sozialak sakrifikatu direlako. Ondoko datuek, eta beraien konparaketak bakarrik hitz egiten duten.

ADIGAILA	1.976	1.989
Langabezia	700.00	2.500.000
Inflazioa	% 20a	%7,4a
Balantzaren defizita	3.000	10.000 (miloi \$)

Estatuan 1.975-ean hasi zen krisiaren ondorioz, eta konpondugabeko arazo hoiei, beste bat erantsi beharra dago, "sozialistek" administrazio zentraletik, berdin egin dutelari PNV-k vascongadetan eta UPN-k Nafarroan, eraman duten gestioarengatik: defizit publikoa, inork pentsa ez lezakeen estatu polizial bat eraikitzen ari direlako, eta noski diru kopuru izugarriak zuzentzen diskietelako gai honeri. Inperialismoaren eskuetara joan den sozialdemokrasi bat, NATO-n sartzeko eta modu erailez ENAM-aren aurka paktatu zuen sozialdemokrazia.

Batez ere ekonomi arloari helduz, 1.976-an zenbait indar progresistek (PCE, CCOO, e.a.) indarrez esaten zuten ezinezko zela demokraziaren transizioa arrakastaz burutu. Baina Erreforma Politikoak (eta begi bistan dago) ez ditu konpondu, baizik eta areagotu ditu aurretik zeudenak. Ba hau gutxi ez balitz, hor dauzkagu nola gobernu zentrala hala autonomikoen, 1.990a aurrean jarriz (urte horretan "Acta única

europaea" deritzaion hori martxan jarriko dela koan) buru ta belarri zifra makroekonomikoak "normalizatu" eta "Europari begiratu" parekatu nahirik.

Inflazioaz kezkarria da. Soltxaga-k helburutzat jo zuen inflazioa %3-aren ingurura jeixtea, baina gobernu zentrala eta autonomikoen hanka sartu dute, eta estaturako zuten helburu politiko ekonomikoak porrot egin diote.

Hanka sartu dute eta sartuko dute, monopolistek jartzen dituzten prezioak, monopolista ez direnak mantenzuko produktuen neurri berean igotzen ez dituzten bitartean, hau da, etekin marjenak kontrolatzen ez dituzten bitartean. Eta hau da inflazioaren irtenbide bakarra.

Hau da benetazko arazoa, PSOE, PNV eta UPN kapital multinazionalarekin, enpresarioekin eta orokorki teknokrata guztiekin bat egin dutenez, ez dute deus lortuko. Eta nola kapitalismoak berea duen etekin marjen zabala lortzea, ba, antolaketa eta berrantolaketa delata, Estatuko eta Hegoaldeko Langileri eta herri mugimenduaren kontra datorkigu. Laburtuz, etekinak mantendu nahi badituz, gastuak igo gabe, beharrezko zait nola soldatak hala gastuak jeixtea. Hauxe izango dugu 1993-ean europarekiko parekatzearen ondorioa.

Ideologikoki honelaxe ari dira lurra prestatzen, lehen transizio politikoa traumarik gabe eginarren, eta orain, European sartuarren. Baina errudunak betikoak jarraitzen dugu izaten. Nola frankismoan, edo UCD-rekin, hala PSOE-PNV-UPN-rekin, zergati berdina entzuten ditugu: "gure ahalmenetik pasa bizi gara", "lekutik kanpo konsumitzen dugu"... Beraiek diotenez, ekonomiaren hiltzailea aurkiturik, "konsumismoan leporaino" sarturiko gizarte batekin topatuz gero, gutxienezko eta derrigorrez hartu behartako neurriak hauek izango lirateke:

1.- Langileria eta herri mugimendua zigortzea,... helburupean.

2.- Enpresarioek errespetatu beraiek etekinak igo ditzaten.

3.- Giza gastu publikoak gutxituz eta kapitalaren gastuak murriztuko dituen azpiegituraketen inbertsioarekin (joan etorriak,...) inizatiba pribatuari on eginen dio. Hori bai gastu militar antzu hoiek murriztu edo deuseztu gabe.

Martxan jarri ziren neurri monetarioen indargabetze eta hutseginen ondorioz, hartu behar-tako neurriak, neurri fiskalak izango dira batez ere. Hau da, ahal den guztia eginen da zergak igotzeko, eta aurrekontu estatal eta autonomi-koen bidez giza gastuen arloan gutxitzeko.

Hartzeko neurrien artean, eta hor buru diren guztiak ados daude (Boyer, Rubio, Fuentes-Quintana ...) honelako batzu egonen lirateke:

A.- SOLDATEN IGOERARI MUGA JAR-TZEA, erosmen ahalmena murriztuz (renten politikari dagokion neurria)

B.- GIZA GASTU PUBLIKOA MURRIZTEA. Azken urteotako politika horixe izan da, lagun-tzarako gastuak murriztea.

D.- HERRIAREN GEHIENGOARI ZERGA IGOTZEA. PFEZ aldatzeko moduak begiraten ari dira, eta diotenez, BEZ %12-tik 14-era igo daiteke; biekin kontsumoa gutxituko dute. BEZ igotzen badute nahi ez den efektu bat egonen da: prozesu inflazionarioa azeleratu, prezioak goz. (Guzti hau politika fiskalaren neurriak be-zala).

E.- KONTSUMORAKO KREDITOAK GARES-TITZEA: batez ere epeetan saltzeko krediteki-ko (prestamoen baldintz eta interesak gogor-tzea)

Esaten ari garen guzti honen exenplu garbia Eroskik egindako ikerketan ikus dezakegu:

Antolaketa garestia: ia 207.000 pezeta urtean famili bakoitzandako.

Familia-tipoa:

Urtean 20.000 kilometroei dagokion gasolina superraren gastua.

Hilan bi butano botilen gastua.

Miloi bat 5 urteetan ordaintzeko kotxe kreditoa.

10 miloitako etxebizitzarako kreditu bat 20 ur-teetan pagatzeko.

Neurri ekonomikoen eragin zuzena:

Gasolinaren urteko igoera: 12.800 pzta.

Etxeko butanoaren urteko igoera: 720 pzta.

* Kotxe-kreditoen urteko igoera: 19.248 pzta.

* Etxebizitza - kreditoen urteko igoera: 174.252 pzta.

FAMILI TIPO HONENTZAKO IGOERA TOTALA 206.720 PZTA./URTEA.

Baita ere esaten zaigu "produktu totalaren tasaren igoera frenatu behar dela, egungo %5,5-tik %4-era, gure ahalmenetik pasatuak omen gaude ta". Gezur zikin bat besterik ez da, zeren eta makroekonomiaren zenbaki haundi hoiek hobetu litezke 2,5 miloi eta gehiago lan-gabetuekin, honek ez bait du inolaz ere kuestio-natzen kapitalaren tasa igoera (hor ikusiko dute zer egiten ari diren honen aurka jokatu leza-keen langileriaren barruan erantzule diren ezker alderdi eta sindikatuak., CCOO-UGT-ELA, EE, IU, e.a.)

Gobernu zentralak eta autonomikoeak (he-mendik aurrera kontuan hartu PNV-ren lagun-tza) neurri murrizgarri hoiek denborarekin ahaz-tuko direlakoan daude, 1993-ri begiratur batez ere, ez dute giza erantzunik nahi eta horretara-ko azpiegituraketako inbertsio haundiak herria-ren bizi baldintzak hobetuarren egiten direla esango digute. Baina egia beste bat da. Kapi-tala bakarrik bait da egoera honetatik irabazle aterako dena. Soka beti bezala estutzen da, baina modernidadeak "askatasun eta aurrera-pen ekonomiko" bezala agertzen du.

* Honek bakarrik balio dio: kreditoan rebisio klausula daukatenei eta garestitza erabaki zenetik kreditoa eskatu dutenei, Gobernuaren neurri interbentzionistaren ondotik.

2.- EGOERA HONERI DAGOKION GURE JARRERA

2.1. -LAB ETA INTERBENTZIO SOZIO-EKONOMIKOA

A.- Sarrera

ENAM-ek lideratzen duen Euskadi-Estatua enfrontamentuan sortu diren baldintza objektibo eta subjektibo berriak; izaera desberdinetako gertakari eta konfrontazioetara zuzendu da "krisis" ekonomikoaren bilakaera (berrestrukturaketan inguruko gatazka beste bideetatik eraman nahia); zenbait langile sektoreen "politizazio" sinplista eta ezezkorra ENAM-en aurka (PSOE,-PNV-ren paktoaren ezaugarriak gero eta gehiago sartuaz lantegietan eragina izan dezaten) ... eta gure interbentzioaren ikuspegi estrategikoa fokatzeko beharra barruan egonik, guzti horrek erakundearen barnean gure interbentzioaren berregokitzeari heltzea eskatzen digute.

Kontestu honetan orain dela bost urte Lesakan onartutako interbentzio linean ez genezake literalki mantendu. Ez eta ere, ez genezake "esperimentu" ilunak edota ardatzik gabeko bilakaeretan sartu. Baina, batetik egoera nolabait aldatu delako, eta bestetik erakundeak organizatiboki eman duen saltoak, gure interbentzioa birmoldatu eta momentura egokitzera behartzen gaitu Euskal Langileriaren barruan gure eta ENAM-en eragina gehitzearren, hori bai gure ezaugarri organizatiboak eta produkzio sistemarekiko enfrontamendua mantenduz. Oreka hau lortzera eta mantentzera behartuak gaude gutxienez 1991-an ospatuko dugu kongresurarte. Erakunde bezala beharrezkoa daukagu kointura politiko-sozialari, eta bunker "demokratiko" eta morroi ideologikoak jartzen dizkiguten pultsoei arto erantzun behar badio, egokitzea, bai eta ENAM-en fronte sindikalak ere.

Une garrantzitsuak bizi ditugu, e- struktura eta militantzi osoak ikusten bait dugu edozein eztabaida edo jarrera tinko eta zintzo barneratzeko beharra. Euskal Langileriaren

interes objektiboen aurka doan sistema politikoaren bihotzean, benetazko aldaketa politiko eta soziala bilatzen duen erakunde baten barruan ez dute lekurik azaleko eztabaidak, ixiltasunak, edo/ta besteen eskuetan uztea bestek eztabaida eta erabaki dezaten.

B.- Gure interbentzioaren ezaugarriak

Gure interbentzio baliabideak, lan militante, borroka ideologikoaren metodoak, ... atzeratuak gelditzen ari zaizkigula argi dago -nahiz eta emeki emeki hobetzen joan- errealitatea gu baino arinago bait doa, eta beraz abiada berean jarri beharra daukagu.

88-ko Ekainan ospatutako Batasun Nazionala oso garrantzitsua izan zen, geroztik ospatutakoan bultzada haundia eman zitzaio- larik aldaketa haundi honeri. Berrestrukturaketa prozesu guzti hori ez genezake pertsonen eta arduren aldaketari bakarrik mugatu, baizik, era batez ere lan alor eta hausnarketa berrietan sartzeko nahia eta beharra aurrean eduki behar ditugu, egunetik egunera gure interbentzio puntualak ideologikoki gorputz sendoago izan dezaten. UGT-CCOO-ek aurkeztu duten LPS-k berriro mahi gainean jartzen ditu borroka ideologiko eta erreibindikatioan aurreratzeko ditugun mugak. Baina hala eta guzti aurre eginen diegu hoiiek bait dira ENAM-ek eta gure erakundeak behar beharrezko dituen tresnak.

Egun ikusten dugu gure lan militantea bi bidetan eratzen dela, nahiz eta biek teorikoki lotu-lotuak egon, biek lantokietan eta orokorki gure interbentzioan abiada desberdina dar- mate. Alde batetik pedagogi gutxi erabiliz eta kanpaina modura diskurtso "hiperpolitikoa" zabaltzen dugu, eta bestetik, arazo konkretuei erantzuna eman, tinkotasuna falta zaigularik batzutan. Hau da, askotan lantegietara arazo sektorialak eta orokorrak batera eramaten ditugu (presoek, burujabetasuna, ...) eta honekin lortzen duguna da LAB-ek oso politikoaren imajena hartzea, langileek despolitizazio kanpaina horren barruan "rollo politikoak" bezala hartzen dituzte gure orriak, baina beste arazoa zera da, ez diogula denbora gehiegiri ematen

langileen gain eragina izan dezagun, nola, noiz eta zer egin behar dugun hausnartzeari. Eta gure eginbehartako bat dugu, langileria gogor eta negatiboki eragiten dioten neurri sozioekonomikoei erantzutea.

Nahiz eta erreformismo sindikalaren planteamenduak kritikatzin eta negatibizatzen jarraitu, egoerak Euskal langileria objektiboki eta berehala dituen interesen aurrean alternatibak proiektatzea eskatzen digu; hori bai, kontuan hartu behar dugu, ezin dugula gure alternatiba panazea modura jarri. Gure erakundeak sindikalismo erreformisten protagonismoa puskatu behar du horretarako beharrezkoa zaigularik interbentzio sozio-ekonomiko sendo bat (berrestrukturaketa industrialaren garaian egin genuen bezala) eta gure diskurtso politikoro korra indartuz eguneroko sindikalismoan legitimitate militantea lor dezagun bilatuz eta hortik dabilzan militante iraultzaileak gure erakundera ekarriz.

ENAM-eko gainerako organismo eta erakundeek beren eguneroko arazoetan lan egin behar duten bezala (baita arazo abandonatuen inguruan lan egiteko modua aldatu eta zabaldu ere), guk ere murgildu behar dugu ENAM osoa izaten ari den egokitzapen globalaren inguruan.

Abagadune honetan konfrontazio soziala karakterizatzen duten egoeren aurrean, ezinbestekoa dugu, erakunde bezala, guztia aztertuz gero erantzuna ematea. Hori lortuaren aparatua guztiak batean lan egitera behar turik gaude (Ekintza erreibindikatioa, Propaganda, Hezkuntza...) eta esturuktura guztietara igorri. Dena helburu bakar batekin, ENAM eta gure erakundea esturategi politikoa eta kointuraren hildotik diskurso sozio-politiko zehartu dezagun. Ez dugu bakarrik erreformismo sindikalari edo gobernuari erantzutera mugatu behar, baizik eta isladatzeko jartzen dizkiguten sasiak gaudituz gero, gure proiektua gero eta gehiago hedatu beharra daukagu.

Euskal Langilerian sinesgarritasuna lortu nahi badugu, errealitatearen abiadari ja-

rraitu nahi badiogu, ezinbestekoa gure lan militantea "gure txokotik" ateratzea eta lan integral bateri ekitea. Aurretik aipatutako lanak eta erantzunkizunak esturuktura eta militante konketu batzuen eskuetan egon arren.

Zeregin inportanteak ditugu aurrerantzean. Une historiko hau transizioan bizi izan genuen bezala erabakikorra da, eta denbora kontutan hartu behar da, beste faktore bat da. Gure militantiaren indarrak zutik jarri eta sendotu behar ditugu irtenbide alternatiboa emateko (Negoziazio Politikoa prozesua), hau da langileen klase-kontzientzia eta antolamendua haunditzeko modu bakarra.

D - Sindikalimo Erreformista, LPS eta LAB

"Berrestrukturaketa/berkonbertsio" prozesuan ta erreforma politikoa indartuarren UGT-CCOO-ELA-ko zuzendaritzek hartu dituzten jarrerak influentzia galtzera eraman ditu. Orain berriro protagonismoa irabazi nahirik beraien diskurtsoa "radikalizatu" dute, EEE-n betidanik eman diren pausuei begiratu. Erreformak Euskadin dagoela argiro esan ez daitekeen, ohinarritzko egitura sozial eta ekonomikoak behar ditu. Eta ez dute lortu inperialismoaren katean ahula delako, krisiaren eraginarengatik, eta ENAMen indarrarengatik. Badira baldintza objektibo eta subjektiboak gure proiektu taktikoa eta esturategikoa sendotzeko itxaropen egiezoak suspertzen dutenak. Irekita diraute klase poolitikorako baldintzak.

Orain arte mantendu dituzten jarrerak sindikatu hoi zuzendaritzen kontraesanak, LPS-ren atzean dauden planteamendu laburtzaile eta erreformistak desmantelatzea, publikoki eta lantoki bakoitzean LPS-ren puntuetan konprometiaraztea... LAB-ek guzti hau bide positibo batetik erabili beharra dauka, gure jarrera eta abiabideak zehatuz langileria alternatibaren buru ikus gaitzan. Momentu egoikia bizi dugu langileria entzuteko prest bait dago, guk hau aprobeztatu behar dugu beste sindikatuak saldukeri guztien gainetik ez deza ten lekuri aurkitu. Baldintza onak beraz kapit-

laren eta erreformismoaren ideologia eta bote-reak ez dezan lotura estabilizatu gizartean.

Gure diskurtsoa desberdina denez ulergarriagoa da, are gehiago langileri osoak (langabetuek, emakumeek, ...), hoiek ere parte bait dira, bizi duen egoera larri honetan. Gure diskurtsoa errez ulertzeak ez du esan nahi erreformismoan erortzera goazenik -egungo markoa onartuz, eta egungo borroka gai ekonomiko hutsei zuzenduz- baizik eta bildurrik gabe sartu behar dugula eguneroko gai kezkarrietan, garrantzitsuak direlako edo/ta garrantzitsuak egiten dituztelako kalean dauden gaiei aurre egin behar diegula.

2.2. - GURE ALTERNATIBA

Argi dago KAS Alternatiba osorik garatzeko mekanismo politiko eta tresna ekonomikoak ez izatean, ezinezkoa dela gure klase-interes aldeko neurri estrukturalak martxan jartzea: gaurko marko haustea ezinbesteko baldintza eta oinarrizko helburua da langileria bizitza ekonomiko eta sozialaren ardatz biur dadin. Kontraesan nagusia, nazionala, garatu eta sakontzeak bide emanen digu, autogobernua eta indar-korrelazio diferenteetara hurbiltzea, eta honela gure klase-interes eragitea haundiagoa izanen da gure herriaren gero-ko konformazio eta determinazioan.

Ez da hau "Programa sozioekonomikoa" daitekeena zehazteko markoa, Negoziazio Politikoaren ondoren botere-laguntza gisa behar dena. Hala ere, gogoratu behar dugu geroraezina dela hura egitea, eta organizazio erantzuleak ahaleginak egin behar dituztela horretaz jabetzeko, gure eta ENAM-N borrokarako, eta batez ere, heziketarako orientabide orokorrerako instrumentu izan dadin.

Momentu egokia da, errealitateak eskatzen digulako, gatazka ENAM-en proiektuaren inguruan, bereziki, Negoziazio Politikoaren inguruan mantentzeko egokia den eskuharteko tresna egin eta onartzeko. Tresna hau ez da behin betikoa izanen, aldaketei egoki beharko dugulako, eta behin behinekotasun iraunkorra-

ren izaera izanen du, dogmatismotik aldentzeko.

Tresna honek parean izan behar ditu erreibindikazio zehatzak eta "abstraktuak". Erantzun zehatzak eduki behar ditu, gure jarre-
rak eta ekintzak batzen dituztenak, eta horrekin batera, beste erantzun batzuk, aintzintasuna eduki ez arren marko berria lortzeko ezinbestekoak. Ez "gehieneko" programa, baino ezta ere "gutxinezkoa, baizik eta berehalako esku-harte ardatzak, errezeta burokratikoetara ihes egin eta langilearendako erreferentziak izan daitez-
zen. Lantegietan eta parte hartzen dugun gainerako markoetan (negoziazio kolektiboetan,...) LAB-en egitura bakoitzak bere alternatiba espezifikoa eta zehatza egin beharko du.

Tresna honen edukinaz berehalako ezta-baida berezi batean mintzatuko da, eta B.N. ean egindako hausnarketak bilduko ditu.

2.3. - LAN PLANGINTZA

Kontuan eduki behar dugu "gure LPS-s" beraien "LPS-aren" aurrean jarri nahi, baizik eta lortu nahi den bakarra egoera honek sor lezakeen giza borrokan partehartzeko prestatzea gu geure linearekin sar gaitzan.

Proposamen orokorra hiru egoeren inguruan kanpaina bat prestatzean datza: Negoziazio Kolektiboa, Langileen Estatutoaren 10. urterena (90-3-14) eta Maiatzaren Lehena. Konpromezu hau Idazkaritza Nazionalak dauka eta berehala artikulatu beharko du.

A.- Gure helburua: Borroka Ideologikoa

Abenduaren 14-eko egoera berdinean aurkitzen gara oraingo honetan ere, hau da, gizartearen ezadostasuna aprobetxatuz -gobernuak bere politikarekin areagotzen duen- langileriaren desideologizazioan sakontzen ari dira. Gure borroka ba hortxen dago kokaturik, borroka ideologiko-politikoa aurrera ateratzen dugun bitartean edo neurrian gure ekintza eta jarrerak zehaztuz joanen gara.

Gogor sartu nahi dute langileriaren barruan, beste batzuen alternatibak estaliz (edo nahiaz gutxienez) hemen gure helburuak lortzeko ez dugula zergatik marko juridiko-politiko aldatzeko aldarrikatu beharrik UGT-CCOO-ELA-k helburu bakarra dute, sindikatuen istituzionalizazioa.

Eta Abenduaren 14-ean egin genuen modura, berriro ere Euskal Langilerian sortu nahi duten "mugimendu hil" horri ekin behar ko diogu. Ez genezake lo geldi, ezta gutxiagorik ere, alderantziz, guk lortu behar dugu langileriak klase proiektu batean bere burua aurki dezan. Lehen esan dugun bezala, momentu egokiak dira gure mezu alternatiboa sar eta barnearazteko.

Gure interbentzioaren bi ardatz nagusiak:

a.- Erreformismoari maskara kendu, patronalaren aurrean egoera larrian jarriz (ordu extrak, murgilpeko ekonomia,...) eta UGT-CCOO-ELA-ren zuzendaritzek nekaraziz, baina ez dugu baseekin enfrentamendurik sortuko komiteen protagonismoaren eskerrerako. Hildo honetatik konpromezu publikoak har erazi behar zaizkie lan zentro guztietan beren LPS-ekin zerikusirik duten gaiak edo puntuak negoziazio kolektiboan sar ditzaten (kontratuen mugak eta aldaketak, lanorduen gutxitzea, langabetuen kontratazioa.

b.- Erreibindikazio alternatiboak planteatu (azkenean egungo egoerari gure alternatiba bezala agertuko direnak), erreformismoaren kontrapuntu eta ENAM-en proiektuarekin zerikusia izango dutelarik

B.- BARRUKO ETA KANPOKO LANA

Bi maila zehaztu behar dira barruko egitura bakoitzean:

1.- **BARNE FUNTZIONAMENDUAN:** (lantokietako afiliatuen bilerak batez ere) gure betebeharrean pentsatu behar genduzko saskonki, lan zentro bakoitzean egoera ongi aztertu eskua nola sartu sindikalki eta bideratu, afi-

liatuen partehartzea gehitu, afiliatu gehiago sortu,...

2.- **KANPORA BEGIRA BERRIZ,** lan zentru bakoitzean LAB-ek oraindik lortzeko dauden eskakizunak, eta kontraesan zehatzetan oinarrituz, agitazio lan handia du egin beharra; prentsa mailan berriz (prentsa, kartelak, muralak, ...), klasearen arazo sozialei erantzuteko alternatiba (bizitza...)

D - FASEAK

1.- Prestakuntza eta hasiera: gure alternatiba sozioekonomikoa eta barneko dinamika hezurramiti eta onestea. Horrek ekarri behar du berarekin zentru bakoitzerako, eta baita ere eskualde eta herrialde bakoitzerako eskakizun eta agitazio plana. Hurrengo faseek behar duten materialeak prestatzea (LEren kritika, propagandaren planifikazioa, agitatorako panfletoak, ...). Negoziazio kolektiboekin batera eginen litzateke lantokietan, eta hauek irauten duten bitartean mantentuko da; lantokietatik at (komunikabideetan, karteletan,...) otsailaren sindikalaren kontraesanak sakonkin aztertzea.

2.- L.E. aren 10.urteurrena: otsailaren 2.astetik aurrera, LE eta honen aplikazioaren kritika serioa plazaratu, eta mobilizazioak antolatzea (delegatuendako batzarrak, sinadurak biltzea...). Inportanteena, fase honetan, gaur eguneko markoaren mugak agerian uztea da.

3.- Maiatzaren Lehena. Martxoaren 15-tatik aurrera, gure alternatiba sozioekonomikoa aurkeztea, eta propaganda kanpaina indartsua egitea. Kanpaina honen helburua langileriaren barruan ezinbesteko erreferentzia izatea. Maiatzaren Lehenean jasoko genituzke lan honen emaitzak. Fase honen mamia langileriar honako hau planteatzean datza: bada-goela egiazko alternatiba bat; bada-goela alternatiba hori garatzeko asmoa duten erakundeak; eta, gure herrian hori posible eginen duen prozesu bat dagoela.

I.N.ari erantzunkizun hau eskatzen zaio; lanerako plan hau zehaztea eta garatzeko

bideak jartzea, hurrengo hilabeteetan ENAM osoaren dinamikan txertatuz eta gure erakundearen barruko egoerari ritmo eta posibilitatez egokituz (baliabide ekonomikiak, egituren gaitasuna,...)

3.- 1990RAKO NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA

3.1.- 19889KO NEGOZIAKETA KOLEKTIBOAREN BALANTZEA

A.- Testuingura

. Itzarobide onak (Abenduak 14aren ostean)

. Langilegoak, teorian behintzat, go-rantzako joera; Gobernu-Ugazaberiak, ordea, beherantzakoa.

. UGT-CCOO-ELA ren arteko ekintza-batasuna. ELAk gutti errespetatu du batasun hau.

. Gure plataforma eta Zentrale erreformistena antz handikoak dira; baina negoziatze orduan estrategia ezberdina erabiltzen dugu.

B.- Alderdi positiboak

. Urte baterako sinaturiko komenioak, gehienak behintzat; Bizkaian izan ezik.

. Laneguna 4 ordutik 16 ordura murriztu da; eta honen bidez azken urteetako dinamikaz apurtu.

. Lehenengo aldiz lortu dugu aurreko urteko K.P.G. (Kontsumo-Prezioaren Gehikuntza)-n oinarrituz negoziatzea. Geuk bakarrik eskatzen genuen zera.

C.- Alderdi negatiboak

. Ez dugu aurrerakuntzarik egin adibidez gizarte-hobekuntzak bezalako gaietan, edo ordainduriko lizentzia eta oporraldietan, segurtasun eta higieanean eta euskarari.

. Ez dugu adorez burrakatu enplegua-ren behin behinekotasunaren kontra.

D.- Ondorioa

Gure eskuharmen-maila orokorrean hobetu dugu arren, eta baita hobekuntza batzuk lortu ere, gizarte-alorra izenaz ezagutzen diren puntuetan izan dugun utzikeriak zera egiten du: gure azken balorazioak mundu desideologizatu honetan NEGATIBOA izan behar duela derrigorrez.

OHARRAK: 1.- Probintzi-Komenioen batezbesteko igoera, hala 89rako sinatu direnetan nola berrikusten ari direnetan, honako hau da:

Arabak: %6,84a

Bizkaian: %7,13a

Gipuzkoan: %7,4a

Nafarroan: %6,97a

2.- Lanegunari dagokionez, ostera, honako hauek dira 89an sinaturiko komenioetako batezbesteko orduak:

Arabak: 1.810 ordu

Bizkaian: 1.801 ordu

Gipuzkoan: 1.796 ordu

Nafarroan: 1.805 ordu

3.- Ikusten denez, 1800eko listoiaren gainetik dago lan egin behar den ordu-kopurua, Gipuzkoan izan ezik.

4.- Sekore publikoan, ordea, batoren eta bestearen batezbestekoak honako hauek dira: % 7,82a eta 1.676 ordu.

3.2.- P.S.P./N.K.

Gure helburu nagusia honako hau da: UGT-CC.OO.-ELA jasaten ari diren kontraesanen garapena lantegietan sakontzea.

"Berbatik oratu" behar diegu eta ugazaberiaren aurka jokatzeko suposatzen duten egoera konkretuen konponketan berba daitezkeen saiatu. Jar dezagun adibide moduan ordu extremen arazoa. CC.OO., UGT eta ELA teorian ordu extremen ezabapenaren alde daude; baina guk ondo dakigu zein den enpresetako errealitatea. Ordu extrak sartzen dituztenak publikoan salatu behar ditugu (panfleto, kartel e.a.-en bidez, herrian eta orobat prentsan eta irratan) Zentrale Erreformistak ere horretan berba daitezkeen saiatuz: eta beste erremediorik ez balego geuk bakarrik.

Gure mezuak argi eta garden iritsi behar du langilegoarengana. Enpresa-Batzordeetako alferrikako eztabaidetan denborarik galduta gabe,

langileriaren berarenganaino eroan behar ditugu gaiak eta eztabaidak, lanleku guztietara, asanbladak bultzatuz, sindikatuak publikoan berbatuz, euren "plataformarekin" zerikusia duten arazoak Negoziaketa Kolektiboan sartuz.

Horrela, "enplegu finakoaren sustaketari" buruz berba egiten dutenean, zera gogoraraziko diegu: ELA-UGTren adkordioari esker, eta itxuraz azkenean CCOOenari esker ere, daudela OSAKIDETZAn gaurregun 3.500 behin behineko lanpostu.

Gaia langabetuen kontratazioarena denean, eskatuko diegu "Lan Publikoaren Jarraipen-Batzordean" ugazaberiarekin eta Administrazioarekin izan dituzten sekretupeko bileren berri emateko; edo hobe, Bizkaiko Langabetuen Asanbladari eska diezaiogegu bere eritzia.

Lanegunari buruz ari garenean eta 35 ordu "europar" hoietara iristeko asteko 37 orduak errebindikatzen dituztenean, sekoreetako komenio ia guztiak aztertu beharko ditugu eta egiaztatuko dugu euretariko portzentaia oso handi batek 1.800 orduetik gora dituela eta zentrale erreformistek muga horiei buruz eza-dostasunik erakutsi ere egin gabe sinaturiko komenioak direla.

Negoziaketa Kolektibo honetan ere, badugu, ukan, desgaste handi bat egiteko aukera; eta, bestalde, Haustekunde Sindikalen hurbiltasunak zeharo baldintzaturik egongo da Negoziaketa Kolektibo hau.

Zentrale Erreformistek kontraesan nabarmen bat daukate eta horrexetan gehiago sakontzeko aprobetxatu behar dugu: alde batetik, P.S.P.k behartzen ditu lanleku guztietan ekintza-batasun osoa eramatera eta zer esanik ere ez Negoziaketa Kolektiboan, plataforma bateratuak, elkarrekin egindako mobilizapenak e.a. egitera beharturik daudelarik; eta beste alde batetik datorren urteko hauteskunde sindikalek nolabait eragotzi egiten die ideia-uztertze hori, zeren afiliatori begira beraien arteko kontrakotasuna eta desmarkatzearen premia dute programak eta zerrendak egiterakoan.

3.3. NEGOZIAZIO-BORNUA

LABek Hego Euskadiko eremua defendatu-ko du negoziazio-bornu bezala. Sindikatuak, bada, probintzi-mailako komenioak negoziaketa-ahalmen guttien duten sektoreen lan-baldintzen defentsa-elementu bezala erabiliko ditu.

Gehienezko eta Guttienezko Komenioak: Probintzi eta sektorekako komenioetan, norma-lean, guttienezko komenioa negoziatzera joko da, sektoreko edo/eta herrialdeko enpresek gaindi dezaketen komenio-motak negoziatzera, alegia.

Euskadiko bornua gaintzen duten komenioei buruz honako hauek bereizi beharko liriteke: Estatu osoko enpresa moduan agertzen diren horiek (Renfe, Gaitegi Nagusiak, e.a.) eta sektoreak bezala ezagutzen direnak (Banka, Papera, e.a.). Estatu osoko enpresen kasuan, eta bertan ordezkariak izango bagenu, LABek negoziazio-bornu honetan ere egon beharko luke, nahiz eta Euskadiko bornuaren propaganda egiten eta berori behin eta berriz erreibindikatzen iharduteko izan; eta sektoreak bezala ezagutzen direnen kasuan honako helburu hauen funtzioan egon leiteke:

a) Lehentasuna duen lana zera izatea: hots, komenio hauek ukan beharreko negoziaketa-bornua Euskadi izan dadin lortzeko burruka.

b) Ahal denik eta gehien lortzea sektore bakoitzeko informazio makroekonomikoa.

c) Bermaturik egotea negoziazio horretan LAB jezartzeak ez duela zalantzan jarriko Euskadiko ezein negoziaketa-bornu, hala enpresa-mailakoa nola probintzi-mailakoa.

d) Ahalbideratzea gure ordezkariak ez dutela izango inolako desgaste sindikalik, eurentzako negoziaketa-bornu posible bakarra horixe denean izan ezik.

e) Eta LABek, kasu guztietan eta beti, lehen-tasuna eman beharko dio Sindikatu bezala koesionatuago bihurtuko gaituen negoziaketa-bornuari eta Euskadiko langileriaren erreibindikazioen aldeko burrukan aurrerakada denari.

3.4. 1990RAKO PLATAFORMAREN ARDATZAK

– **Esparru pertsonala:** Komenioek plantila osoarengan izan behar dute eragina. Eta ez eraginkortasun mugatuzko akordioetan.

– **Denborari dagokionean:** Urtebeteko jadane-kotasuna; lehengo urteetako esperien-tziaren ondoren, atal honetan iazko zuzperral-dia mantendu behar da.

– **Alogerak:** Kontutan harturik Pertsona Fisi-koen Errentaren Gaineko Zerga-GSren zama gero eta astunagoa, Gobernuaren politika fis-kalak eta ekonomikoak eskuratzeko ahalean duten eragin negatiboa, puntu bi 1989ko I.P.C.ren gainetik.

– **Lanegutegia:** Alde bien adostasunaz egin-goda lanegutegia.

– **Lan-iharduna:** Erreferentziatzat astero 37 orduz egotearena izan behar da Negoziazio Kolektibo honen ardatz nagusienetariko bat.

– **Ordu Extrak:** Zeharo kendu; beste sindi-katuak konprometitu; Enpresa Batzordearen kontrola.

– **Kontratazioak:** Kontratazio fijorako erizpi-deak; Enpresa-Batzordearen kontrol neurriak.

– **Pizgarriak:** Ekoizkortasunarengatiko piz-garri eta plusen desagerketarako joera marka-tu behar da, eta alogera bajaranra potentziatu.

– **Ekoizkortasuna eta mugikortasuna:** Ekin egin behar da ekoizpen erritmoen plantila-malgutasunarengatik, polibalentzien eta mugikor-tasun geografiko edo funtzionalaren aurka.

– **Euskara:** LABek komenioetan apoiatu egin-goda du ezen, Enpresek AEKn matrikulatzea ordain dezaten, Euskara iragarki-oholetan, komunikatuetan,... egon dadin, Enpresaren barruan hizkuntza bizia izateko borrokatuz; horrexegatik ikasteko erraztasunak erreibindi-katu behar dira: ihardun-ordu aldaketak, bai-menak, ihardun-murritzaketak, edo klaseak Enpresaren bertan ematea ere bai.

– **Pentsio-Fondoak:** Gure jarrera ez da, fondo hauek lan-tokietatik bizkortzeari uko egitea baino izan behar da.

– **Lan Osasuna-Batzordeak:** S. eta H. Batzordeetako Lehendakariak langileek edo beraien ordezkariak hautateak izatea planteaitu. Euren eskura izango dute, euren atazak egiteko behar besteko denbora (jagoletza, lantegiko arazoak konpontzea, bilerak, ikastaroetara joatea, kanporako kontsultak izapideak ... , eta beste). Gutxienez urtero behin arakaketa exhaustiboa, langile bakoitzak jasan behar dituen arriskuei moldaturik.

– **Berehalako berronarpena:** Botatzearen baliogabetasun edo bidegabetasuna dekretatzen duen ebazpen judiziala denena.

– **Eskubide Sindikalak:** Batzorde eta Ordezkarien ordu-kreditua handitu, Askatasun Sindikalaren Lege Organikoa eta Langileen Estatutua gaingiduz. Batzar-ordu ordainduak gehitu. Sindikatu bereko Ordezkarien orduak metatu ahal izatea.

– **Lanerako Ezgaitasun Iragankorra:** %100 leheneko egunetik, L.E.I. oporretan edo euron zati batetan bada, L.E.I. egoera amaitutakoan gozatuko dira.

– **Lanpostuaren Erreserba:** Edozein inguruabarretan, euren borondatez ez delarik, hara joaterik ez daukatenei; zio politikoz, sindikalez; presoak, errefuxiatuak.



